

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

**Enplegua sortzen ari da,
baina 2008 aurreko
mailatik oso urrun**

**Langabezia jaisten doa, 2008
aurrekoaren bikoitza bada ere**


Kontratuen luzaera oso laburra da

**Langabeziagatiko prestazioak
murrizten ari dira**


**Europako postu okerrenetan,
langabezia eta tenporalitatean**

Historiako BPG altuena sortu da


Enplegua sortzen ari da, baina on indik 2008 aurretik zegoen mailatik oso urrun gaude




Langabezia jaisten doa, baina 2008 aurrekoaren bikoitza da




Epemuga zehazten duten kontratuen % 78a hilabete bako gutxiagorako da




Langabezia gaitiko prestazioak murrizten ari dira eta soilik langabeen % 39,3 babesten dute



EB-28ko postu okerrenetan gaude tenporalitate eta langabeziari dagokionez



Eta honi guztia historiako BPG handiena dugunean





Aurkibidea

EGOERAREN AZTERKETA

1. Enpleguak gora egin du 2013tik, baina 2007ko mailatik oso urruti dago.....4
2. Enplegu suntsiketa sakona sektore pribatuan.....4
3. Soldatapekoen laurdenak aldi-baterako kontratua du5
4. Kontratuen %93,4 aldi-baterakoak da.....5
5. Kontratuen luzaera oso murrizta da6
6. Langabezia murriztu egin da 2012tik baina 2007koaren bikoitza da oraindik ere7
7. Langabezia tasa larria da7
8. Langabeziagatiko prestazioek murrizketa handiak pairatu dituzte eta estaldura urriagoa eskaintzen dute8
9. Europar Batasuneko egoera okerrean jarraitzen dugu langabezia eta tenporalitateari dagokienez8
10. Emakumeekiko diskriminazioa HEHn eta EB-28n10

HILAREN PUNTAKO GAIA: Inoiz baino aberatsago

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
BPG	Barne Produktu Gordina
BAI/EPA	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
EIN/INE	Estatistika Institutu Nazionala

EGOERAREN AZTERKETA

Sarrera

2016an gertatutakoaren ondorio nagusia honako hau da: beste urte batez errentaren banaketa aurreko urteetako baino are ezberdinagoa da. Enplegua sortu eta langabezia murriztu da; baina, sortutako aberastasuna (BPG) subprime krisia hasi zen urtekoa (2008koa) baino %3,9 altuagoa izan bada ere, langabezia maila orduan zegoena baino askoz ere handiagoa da eta ez da enplegu nahikorik sortu. Izatez, enpleguaren kalitatea guztiz prekariora da eta era bortitzean diskriminatzen dira emakumeak, gazteak eta 55 urtetik gorakoak.

Gainera, langabeziagatiko prestazioetara bideraturiko gastuak murrizketak jasaten segitzen du: gero eta pisu txikiagoa du BPGan, urterik urte eskaintzen duen estaldura baxuagoa da eta hartzaileko eta orotara bideratzen den baliabide kopurua murrizten da.


Beraz, ulertezina da bizitzen ari garen une honetan biztanleria osoaren bizi-baldintzak hobetuko dituzten neurriak ez hartzea, pertsona guztiak barneratzen dituen berdintasunean eta gizarte justizian oinarrituriko gizarte eta ekonomia mailako alternatiba sortu beharra baitago.

** Txosten hau 2017ko otsailaren 2an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

1. Enpleguak gora egin du 2013tik, baina 2007ko mailatik oso urruti dago

2016an Hego Euskal Herriko enpleguak gora egin du. EPAren arabera, biztanleria okupatua 20.100 pertsonatan hazi da (Gizarte Asegurantzak emandako datuak antzekoak dira, abenduko batezbesteko afiliazioa 23.230 pertsonatan igo baita aurreko urtekoarekin alderatuz).

Gizarte Asegurantzaren batezbesteko afiliazioa (abendua) eta biztanleria okupatua (4HH) HEHn



Iturria: Gizarte Asegurantzak, INE

Enpleguaren hazkundea bi erkidegoetan eman da eta adin talde guztiei eta baita gizon eta emakumeei ere eragin die: Nafarroan biztanleria okupatua 12.900 lagunetan igo da eta EAEn 7.200etan. Adin taldeka, 55 urtetik gorako 7.100 langile gehiago daude eta 9.600 gazte gehiago. Sexuka, emakume okupatuen kopurua 8.500 handiagoa da eta gizonena 11.700.

Hala eta guztiz ere, 2007ko azken hiruhilabeteko datuekin alderatzean (2008ko krisiaren aurretik egon zen azken urte amaierarekin, hain zuzen), gaur egungo enplegu maila 126.400 murriztagoa da EPAren arabera.

Biztanleria aktiboa, enplegua duten eta langabezian dauden pertsonen batura izanik, 3.400 pertsonatan hazi da 2016an Hego Euskal Herrian eta kolektibo guztietan izan du eragin positiboa EAeko emakumeengan izan ezik (2.600etan murriztu baita).

2. Enplegu suntsiketa sakona sektore pribatuan

Sektoreka, 2016ko azken hiruhilekoan HEHko biztanleria okupatuaren %2,2 lehen sektorean aritu da, %5,3 eraikuntzan, %23,7 industrian eta %68,6 zerbitzuetan. Enpleguaren egitura aldatzen ari da, sektore guztiek pisua galduz zerbitzuetan kontzentratzeko (terziarizazio prozesua deritzona); koadroan ikusten denez, honi buruzko informazioa 2008an hasten da.

Okupatutako biztanleria sektoreka

	HEH		EAE		Nafarroa	
	2016 4HH	2008 1HH	2016 4HH	2008 1HH	2016 4HH	2008 1HH
1. sektorea	2,2	2,4	1,7	1,8	4	4,5
Eraikuntza	5,3	10,3	5,6	9,9	4,1	11,9
Industria	23,7	25,2	23,2	24,6	25,4	27,1
Zerbitzuak	68,8	62,1	69,4	63,7	66,5	56,5

Iturria: INE

Terziarizazio prozesua nabarmenagoa izaten ari da Nafarroan, sektore guztiek galdu baitute langilerik, erkidego honetako zerbitzuetan izan ezik (16.400etan handitu da 2008az geroztik, EAEn 13.400etan jaitsi delarik). Lehen sektoreak 2.200 lanpostu suntsitu ditu Nafarroan eta 3.000 EAEn, eraikuntzak 10.200 eta 37.800, hurrenez hurren, eta industriak 24.100 eta 48.200.

Kontratatzailearen jabegoa kontuan izanik, EPAren arabera enplegu publikoa 4.100 pertsonatan handitu da 2007ko azken hiruhilekoaren eta 2016koaren artean, Nafarroan emandako bilakaerari esker (6.000 pertsonatan hazi baita: erdia gizonak eta beste erdia emakumeak; EAEn murriztu egin da 1.900etan, horietatik hiru heren emakumeak izan direlarik).

Sektore pribatuan lanpostuen galera handia eman da, 2007an baino 131.500 lanpostu gutxiago baitaude orain (25.600 gutxiago Nafarroan eta 105.900 EAEn).

Enplegua dutenen artean, 2016 amaieran %17,3 lanaldi murriztean aritu da (%16,4 Nafarroan eta %17,6 EAEn). 2007ko epealdi berberarekin alderatzean, partzialitate mailak nabarmen egin du gora: orduan %13,6 zen HEH mailan, eta oso antzekoa bi erkidegoetan.



Emakumeek jasaten dituzten diskriminazioen artean, partzialitate maila nabarienetakoa da: beraien partzialitate tasa %29,1ekoa da, gizonena %7koa den bitartean. 2007az geroztik genero ezberdintasunak mantendu dira, urte hartan %4 baitzen gizonen partzialitatea eta %26,4 emakumeena.

3. Soldatapekoen laurdenak aldi-baterako kontratua du

Okupaturiko biztanleriaren artean, soldatapekoa 1.006.500ek osotzen dute (233.900 Nafarroan eta 772.600 EAEn) eta 31.500etan handitu da azken urtean (16.600 eta 14.900 erkidego bakoitzean, hurrenez hurren). Soldatapeko enplegua murriztu egin da 2007tik 44.400 pertsonatan, gizonengan kontzentratu den murrizketa izanik (gizonak diren 55.600 soldatapeko gutxiago daude, emakumeak diren 11.300 gutxiago daudelarik). Bilakaera hau bi erkidegoetan eman da.

Gazteen artean, azken urtean soldatapeko enpleguak 8.300ean egin du gora baina 2007tik 42.000n gutxitu da, bi bilakaerak erkidego eta sexu bietan eman direlarik. 55 urtetik gorakoen artean, aldiz, soldatapeko enpleguak gora egin du bai azken urtean eta baita 2007tik orain arte ere, erkidego eta sexu bietan: azken urtean 6.300 soldatapeko gehiago daude eta 2007az geroztik 52.500 gehiago.

Soldatapeko pertsonen %23,8ak aldi-baterako kontratua du: %24,9ak Nafarroan eta %23,5ak EAEn. 2007ko egoerarekin alderatzean, prekarietate mota honen hobekuntza bat ikusten da, orduan soldatapekoen %28,6ak baitzuen aldi-baterako kontratua (%27,6 Nafarroan eta %28,9 EAEn). Arrazoi nagusia honetan datza: enpleguaren suntsiketa batez ere kontratu tenporala zutenen artean eman da kontratuak berri ez zirelako. Izatez, tenporalitate tasa era jarraian joan zen murrizten 2008an zegoen %28tik 2013ko lehen hiruhilekoko %19raino, berriro handitzeko ordutik aurrera.

Zentzu honetan ere, gizonetik diskriminazioa pairatzen dute emakumeek, duten tenporalitate tasa %26,7koa da, gizonena %21 delarik. 2007arekin alderatuz, ezberdintasunak murriztu egin dira (orduan gizonen tenporalitatea %24,3 eta emakumeena %33,8 izan zen).

Soldatapeko langileen tenporalitatea 2016ko 4HH

	HEH	EAE	Nafarroa
Guztira	23,8	23,5	24,9
S. publikoa	30,2	31,4	26,3
S. pribatua	22,4	21,8	24,5

Iturria: INE

Kontratatuzaileei erreparatuz, sektore publikoan dabilzan soldatapekoen tenporalitatea pribatukoena baino altuagoa da, 2016ko azken hiruhilekoan 7,8 ehuneko puntukoa izan delarik ezberdintasuna Hego Euskal Herri mailan. Bi sektoreen tenporalitate ezberdintasuna askoz ere handiagoa da EAEn (9,6 puntutakoa) Nafarroan baino (1,8 puntutakoa).


Hemen ere emakumeek prekarietate handiagoa pairatzen dute: sektore publikoan duten tenporalitatea %36,5 da (%20,5 gizonena) eta pribatuan dutena %23,9 (gizonena %21,1 den bitartean).

4. Kontratuen %93,4 aldi-baterakoak dira

2016an 1.284.322 kontratu egin dira Hego Euskal Herrian: %93,4 aldi-baterakoak izan dira eta %36,7 lanaldi murriztekoak. Egindako kontratu kopuruak gora egin du azken urtean (2015ean baino 78.069 gehiago egin dira). Honek erakusten du dagoen prekarietate eta lan-errotazio maila erraldoia, 2016an zehar soldatapeko kopurua baino kontratu gehiago egin baitira.

Ondorengo grafikoan ikusten denez, azken lau urteotan tenporalitate maila ia ez da aldatu kontratazioan, eta partzialitatea maila antzekoetan kokatu da 2015ean izan ezik (urte horretako kontratuen %43,1 lanaldi murrizterako izan ziren).

Egindako kontratuak HEHn eta horien tenporalitate eta partzialitatea



Iturria: SEPE

Lurraldeka, EAEn ematen ari den partzialitate maila (2016an egindako kontratuen %40,1 lanaldi murriztekoak izan dira erkidego honetan) Nafarroakoa (%27,9 2016an) baino altuagoa izan da. Aitzitik, kontratazioan emandako tenporalitatea altuagoa izan da Nafarroan (%94,7 azken urtean) EAEn baino (%92,9).

Prekarietatea 2016an egindako kontratuetan

	HEH		EAE		Nafarroa	
	T	P	T	P	T	P
Guztira	93,4	36,7	92,9	40,1	94,7	27,9
Gizonak	93,2	24,3	92,8	26,4	94,3	18,8
Emakumeak	93,6	48,7	93	53,6	95,1	36,4

Iturria: SEPE

Sexuaren arabera, emakumeek diskriminazioa jasaten dute kontratazioan ere: Hego Euskal Herrian 2016an egin zaizkien 652.713 kontratuen %48,7 lanaldi murriztekoak izan dira (%36,4 Nafarroan eta %53,6 EAEn). Gizonen kasuan kontratu guztien %24,3 izan dira lanaldi murriztekoak (%18,8 Nafarroan eta %26,4 EAEn). Era berean, emakumeen kontratazioan tenporalitatea handiagoa da gizonenean baino, aurreko taulak erakusten duen bezalaxe.

5. Kontratuen luzaera oso murrizta da


2016an Hego Euskal Herrian egindako 1.284.322 kontratuen artean, 1.199.700 aldi-baterako kontratuak izan dira. Horietatik, %98,5 (1.181.800

kontratu, hain zuzen) lau motakoak izan dira: 551.000 kontratu ekoizpenaren gorabeherengatik, 342.600 obra edo zerbitzu jakin batengatik, 239.200 bitartekotasunezkoak eta 48.900 SEPEk aurrikusi gabeko gisara kalifikatzen dituenak. Gainontzeko %1,5 (17.900 kontratu) beste motatako kontratu tenporalak izan dira.

Kontratuen estatistikak egitean uniformetasun gabeziak daudenez, kontratuen luzaera aztertzeko aipaturiko 1.181.800 kontratuen informazioa erabiliko dugu (2016an egindako kontratu tenporalen %98,5 eta egindako kontratu guztien %92).

SEPEk luzaerari buruz informazio zehatza eskaintzen duen aldi-baterako kontratuen %19,5 astebete edo gutxiagorako luzaera izan dute. Edo informazio zehatza daukaten kontratuen %77,9ak hilabete baino murriztagoa den luzaera izan du.

2016an HEHn egindako kontratuen gehieneko luzaera, metatutako datuak (obra, gorabehera, bitartekotasun eta aurrikusi gabeko kontratuak, zehaztu gabeak ezik)



Iturria: SEPE

Hortaz, eta, beste era batera esanda, zenbaki absolututan, gutxienez 155.300 kontratuen luzaera astebetekoa edo laburragoa izan da. Gutxienez 619.700 kontratuk izan duten luzaera hilabetekoa baino motzagoa izan da, astebete baino gutxiago iraun duten kontratuak kontuan izanik. 715.100 kontratuen luzaera, asko jota, hiru hilabetekoa izan da (aurrekoak zenbatuz) eta 774.700ena sei hilabete baino murriztagoa (berdin). Beste 386.500 kontratuk ez dute zehaztuta izan luzaera, honek esan dezakeelarik egun bakar bateko luzaera izan dutela edo urtebete baino gehiagokoa.

Horrela izanda, argi eta garbi dago 2016an sinatu egin diren 1,28 milioi kontratuen erdiak ez duela




izan hilabeteko luzaerarik ere, hilabete baino laburragoak izan baitira. Sortzen den enpleguaren kalitatea erakusten du honek.

6. Langabezia murriztu egin da 2012tik baina 2007koaren bikoitza da oraindik ere

Biztanleria Aktiboaren Inkestak (EPAk) 157.000 pertsonatan estimatzen du Hego Euskal Herrian dagoen langabe kopurua 2016ko laugarren hiruhilekoan, hau da, urtebete lehenago baino 16.900 gutxiago. SEPEko bulegoetan langabezian izena emandakoen kopurua aintzat hartuta, 2016ko abenduan 173.218 pertsona zeuden langabezian HEH mailan, urtebete lehenago baino 16.942 gutxiago.

SEPEn izen emandako langabezia (abendua) eta EPAn estimatua (4HH) HEHn



Iturria: SEPE, INE

Langabezia murriztu egin den arren, eta jada lau urte jarraian doa horrela, 2016ko langabe kopurua 2007koaren bikoitza da. Beraz, ezin esan daiteke egoera berreskuratu denik. Zehazki esanda, azken urtearen amaieran 80.300 langabe gehiago daude 2007an baino EPAn arabera, eta 80.061 gehiago SEPEren arabera.

EPAko datuek Nafarroan 30.800 langabe daudela diote (aurreko urtean baino 10.600 gutxiago baina 2007an baino 17.500 gehiago) eta 126.200 EAEn (aurreko urtean baino 6.300 gutxiago baina 2007an baino 62.800 gehiago).

Ordea, SEPEren arabera Nafarroan 40.045 langabe daude (aurreko urtean baino 3.098

gutxiago, baina 2007an baino 18.470 gehiago) eta 136.173 EAEn (2015ean baino 13.844 gutxiago, baina 2007an baino 61.591 gehiago).


Deigarria da EPA eta SEPEko datuen ezberdintasun sakona Nafarroan 2016an eman den bilakaeran: lehenaren arabera langabezian dagoen biztanleria estimatua %19,8 murriztu da eta bigarrenaren arabera, aldiz, langabezia egoeran izena emanda dagoen pertsona kopurua %7,2 gutxitu da.

Sexuaren arabera, EPAk 80.300 gizon eta 76.800 emakume langabe daudela dio, antzeko eran banandurik bi erkidegoetan. Adinaren arabera, 19.500 gazte langabe daude (7.000 gutxiago 2016an zehar, baina 2.800 gehiago 2007an baino) eta 55 urtetik gorako 23.000 (adin talde honetan langabeziak gora egin du bai azken urtean -2.800 gehiago- eta baita 2007az geroztik ere -17.500etan).

7. Langabezia tasa larria da

Era honetan, Hego Euskal Herrian langabezia tasa %11,7an kokatzen da 2016 amaieran: %10,1 Nafarroan eta %12,2 EAEn. Adin taldeka, gazte langabezia tasa %26,7koa da eta 55 urtetik gorakoena %10ekoa. Hiru kasu horietan langabezia mailak altuagoak dira EAEn Nafarroan baino. Horretaz gain, langabezia egoeran dauden pertsonen %57,8ak urtebete baino gehiago darama lanpostu baten bila ezer lortu gabe edo epe luzeko langabezia egoeran. EAEn larriagoa da egoera (langabeen %60,2 horrela daude) Nafarroan baino (bertan langabeen %48,1 daude horrela).

Langabezia tasa adinaren arabera eta epe luzeko langabezia HEHn, 2016ko 4HH



Iturria: INE


Azken urteko bilakaera positiboa izan da kolektibo hauetan, 55 urtetik gorakoenean izan ezik, hauen artean era apalean okertu egin baita egoera.

Sexuen arabera, emakumeek langabezia tasa altuagoa pairatzen dute (are diskriminazio gehiagorekin Nafarroan): beraien langabezia tasa %12,2koa da, gizonena %11,3 delarik. Gazteetan antzeko langabezia tasa (EAEn txikiagoa). Egoera hobea da 55 urtetik gorako langabeziari (emakumeena %9,6; gizonena %10,3) eta epe luzeko langabeziari dagokienez (emakumeena %56,8 eta gizonena %58,5).

8. Langabeziagatiko prestazioek murrizketa handiak pairatu dituzte eta estaldura urriagoa eskaintzen dute

Hego Euskal Herrian langabezia egoerara bideratzen diren prestazioek erortzen jarraitzen dute eta, 2016ko abenduan, langabeen %39,3ri besterik ez diete babesik eman. Ehuneko hau gutxienez 2005etik dagoen txikiena da urteko azken hilabeteari dagokionez. Prestazio hauen estaldura maila jaisten dabil 2009tik aurrera, orduan langabeen %69,5ek jaso baitzuten mota hauetako prestazioen bat.

Prestazioen estaldura (%) eta langabeko batezbesteko gastua HEHn abenduan



Iturria: SEPE

Era honetan, prestazio hauen hartzailerako bakoitzeko batezbesteko gastu ratioa murrizten ari da: azken urteko abenduan 397,73 euroan kokatu da Hego


Euskal Herrian, 2009ko datuaren erdia baino gutxiago delarik.

Zenbaki osotan, HEHn 2016ko abenduan langabezia egoeran zeuden 176.218 lagunetatik 107.025ek ez zuten inolako langabeziagatiko prestaziorik jaso, 39.007k kontribuzio-mailako prestazioak jaso zituzten eta 30.186k asistentzia-mailako prestazioak.

Prestazio hauetara bideratzen den urte osoko gastua kontuan izanik, 2016an 913 milioi eurokoa soilik izan da Hego Euskal Herrian. Honek BPGaren %1 eskasa suposatzen du.

Aurreko urtearekin alderatzean, langabeziagatiko prestazioetara bideraturiko diru-kopurua 160 milioi euroan murriztu da eta BPGaren 2 hamarrekotan. Langabezia egoeran dauden pertsonen beharrak asetzeko gastu altuena egin zen urtearekin alderatu ezker (2012arekin, hain zuzen), 2016an bideratutako baliabideak 792 milioi euroan murriztu dira eta aberastasunean (BPGan) zuen pisuaren erdia suposatu du.

Gastua prestazioetan eta BPGarekiko pisua HEHn



Iturria: SEPE, Eustat, INE


9. Europar Batasuneko egoera okerrean jarraitzen dugu langabezia eta tenporalitateari dagokienez

Europako 28 estatuen Batasunaren egoeraren klasifikazioa egin ezker, Hego Euskal Herria osotzen duten bi lurraldeak barneratuz eta azken datuak 2016ko hirugarren hiruhilekoak izanik, argi eta garbi ikuskatzen da gure herrialdearen



egoera EB-28ko okerrenetakoa dela bai langabeziari dagokionez eta baita aldi-baterakotasun tasari dagokionez ere.


Langabezia tasa 2016 3HH



Iturria: Eurostat, INE

Zehazki, EB-28an batezbestean dagoen langabezia tasa %8,3 dela ikusten da, HEHkoa %12,8 den bitartean. Gurean baino egoera txarragoan bakar-bakarrik Estatu espainiarra eta Grezia daude (bi hauek Batasuneko beste estatuen mailetatik oso uruti). Egoera hoberenak, aldiz, Islandian, Txekian eta Alemanian daude, %2,6, %4 eta %4,1eko langabezia tasekin, hurrenez hurren.


Gazte langabezia tasa 2016 3HH



Iturria: Eurostat, INE

Gazte langabeziari dagokionez, Hego Euskal Herrian dugun egoera are okerragoa da, EB-28n dagoen batezbestekoaren bikoitza baita hemengo gazte langabezia tasa: %41,8 gurean eta %18,5 Europan oro har. Ez gaude oso urrun egoera makalagoan dauden Estatu espainiarra (%41,9ko tasarekin) eta Greziarengandik (%44,2), nahiz eta EAEko gazte langabezia tasa soilik Greziarena baino hobea den. Egoera hobereenen Islandia (%4) eta Alemania (%7,6) daude berriro ere, kasu honetan Herbehereen aurretik (%10,3).

Behin-behinekotasun tasa 2016 3HH



Iturria: Eurostat, INE


Tenporalitateari begira, Europa mailan langile guztien %14,6 ari dira aldi-baterako kontratu batekin, HEHan ehuneko hori %24,5ekoa den bitartean. Beraz, ezberdintasuna ehuneko hamar puntukoa da. Kasu honetan ere, bi estatu bakarrik daude gurean baino egoera txarragoan: Estatu espainiarra (%27) eta Polonia (%27,3). Tenporalitate tasa baxuenak Europako ekialdeko estatuetan daude, Errumania (%1,4), Lituania (%2,5) eta Letonia (%3,6) buruan daudelarik.

10. Emakumeekiko diskriminazioa HEHn eta EB-28n

Aurreko datuei gizon-emakumeen arteko alderaketa gehitu ezker, horretarako EB-28 eta HEHko datuak besterik erabili ez badira ere, agerikoa da emakumeek pairatzen duten diskriminazioa prekarietateari (aldi-baterakotasun eta partzialitate tasen bidez neurtuta) eta baita

langabeziari (guztirakoa, gazteena eta 55 urtetik gorakoena) dagokienez ere.

Genero diskriminazioa



Iturria: Eurostat, INE

Grafikoek erakusten dutenez, emakumeek pairatzen duten tenporalitate tasa gizonena baino 5,5 ehuneko puntu altuagoa da HEHn eta 6 hamarreko altuagoa EB-28n. Partzialitate maila ere askoz altuagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (HEHn 3,5 aldiz handiagoa da, EB-28n 3,6 aldiz handiagoa).

Emakumeek jasaten dituzten langabezia tasak gizonenak baino altuagoak dira Hego Euskal Herrian, baina ez aldiz EB-28ko gazte eta 55 urtetik gorakoen kasuan. Hain zuzen ere, emakumeen langabezia tasa gizonena baino 2,9 ehuneko puntu altuagoa da HEHn eta puntu erdi handiagoa EB-28n.

Gazte langabeziari dagokionez, emakumeek gizonenak baino %37,4ko langabezia handiagoa dute HEHn, baina 7 hamarren baxuagoa EB-28n. 55 urtetik gorakoen artean langabezia %60,8 altuagoa da HEHn emakumeen artean gizonen artean baino, nahiz eta 8 hamarren baxuagoa EBn.



*

Ekonomia, 2016an inoiz baino aberastasun gehiago sortu da HEHn

Azken urteotan eman den hazkunde ekonomiko garrantzitsua medio, sortzen den moneta aberastasun ofiziala -BPG delakoa- era nabarmenean hazi da 2013az geroztik. 2016ko estimazioen arabera, Nafarroako BPG %2,9an hazi da eta EAEkoa %3,1.


Honek eragin du BPG prezio arruntetan (edo eguneratuta prezioen bilakaera kontuan izanik) 91.829 milioi eurokoa izatea Hego Euskal Herrian, horietatik 72.504 milioi euro EAEn dagozkiolarik eta 19.325 milioi euro Nafarroari.

Kalkulua biztanleriaren arabera eginik -BPG per capita-, pertsonako batezbestean sortzen den aberastasuna 32.700 eurokoa izan da HEHn 2016 urtean (33.400 eurokoa EAEn eta 30.300 eurokoa Nafarroan). 2008ko BPG per capitarekin alderatuz, HEHko azken urtekoa %2,2 handiagoa izan da (eta %2,9 handiagoa EAEn; berriz, Nafarroan biztanleria BPG baino gehiago hazi da, 2016ko batezbesteko aberastasuna %0,2 murriztuz 2008koarekin konparatzean).

Honek esan nahi du bi erkidegoetan historiako kopururik altuena den aberastasuna sortu dela azken urtean, 2008koaren gaineratik; gogoratu dezagun urte horretan hasi zela subprime deituriko krisia.

Kopuru zehatzetan, Hego Euskal Herriko 2016ko BPG 2008koa baino %3,9 handiagoa izan da (%3,1 handiagoa Nafarroan eta %4,1 altuagoa EAEn). Zenbaki absolututan, 2008an baino 3.442 milioi euro gehiago sortu dira HEHn: 2.856 gehiago EAEn eta 586 gehiago Nafarroan.

BPG prezio arruntetan, milioi euroak



Iturria: INE, Eustat

Nola nahi ere, aberastasunaren sortzean eman den maximo historiko hau ez da biztanleriaren egoeran islatu, aberastasunaren banaketa orain askoz ere ezberdinagoa baita subprime krisia hasi zenean baino. Soldatek eros-ahalmena galdu dute, lan-errentetara bideratzen den BPGaren zatia askoz ere murriztagoa da, sozietate zerga bidez biltzen dena askoz ere gutxiago da, pobrezia goraka doa, eta abar.

Ekonomiaren bilakaera ezberdin honek, lanaren eta gizartearen egoeren bilakaera ez hain onari loturik, neurri zorrotzak hartzeko premia erakusten du: zergen, aurrekontuen, gizartearen, lanaren eta ingurumenaren arloan hartu beharreko neurri larriak, pertsona guztien bizi-baldintzak hobetuko dituen, bizitza helburu zentral gisa kokatuko duen eta berdintasunean, gizarte justizian eta naturarekiko errespetuan oinarrituriko gizarte eta ekonomia mailako alternatiba sortzeko.

Lined writing area with horizontal dashed lines.